

DOMUND 2018

Son patronos de las misiones de la Iglesia Católica San Francisco Javier y Santa Teresa del Niño Jesús y de la Santa Faz, nuestra Santa Teresita. Si el primero fue un volcán de amor a Dios y de deseo de llevar almas a la salvación, aunque tuviera que viajar hasta los confines del mundo conocido; la segunda, siempre encerrada en su monasterio de Lisieux, fue también eficaz, como Francisco Javier, en la transmisión de la fe. En este día del Domund de 2018 ponemos nuestra atención, tanto en el ardor misionero infatigable de Javier, que le llevó hasta el Japón y las orillas de China, como en la eficaz labor de Teresa en su vida “escondida”. Hoy, como entonces, hay misioneros en la primera línea, y los hay también en la retaguardia, a modo de intendencia material y espiritual. Más aún, en nuestros días se han desdibujado los límites entre “primera línea” y la “retaguardia”. El planeta Tierra es tierra de misión.

Sabemos que el afán de almas consumía a Santa Teresa de Lisieux, que compartía la ambición de la otra Teresa, la de Ávila, de ir a “tierra de paganos” para testimoniar la fe incluso con el martirio. Pero ambas aceptaron su reclusión, para ser, en el monasterio, una “central nuclear” productora de energía sobrenatural. Hoy nos explican los científicos que un poco de materia de determinados metales puede transformarse en abundante energía, capaz de iluminar muchos hogares y mover máquinas complicadas. Un corazón entregado, que intenta acomodarse a los sentimientos del Corazón de Cristo, es también, por la gracia de Dios, generador de gracia, llevando su acción iluminadora a todos los confines de la tierra.

Cuando hablamos de “las misiones”, en el sentido más tradicional del término, nos vienen a la mente las figuras de tantos hombres y mujeres heroicos que se han esforzado y se esfuerzan en dar testimonio de nuestra fe en lugares muchas veces inhóspitos, y que al mismo tiempo, ayudan de manera impagable a la promoción humana de personas que suelen ser los más pobres entre los pobres. Es responsabilidad nuestra el sostener a estos hermanos y hermanas, tanto con nuestra asistencia material, como con nuestra oración. Como en el caso de Santa Teresa de Lisieux, nuestra participación en la misión es decisiva. Son bien conocidas las palabras de santa Teresita con las que comparaba la Iglesia -como hizo San Pablo- con un cuerpo en el que hay un corazón, que envía sangre a todo el cuerpo: En la Iglesia, el corazón “encierra en sí todas las vocaciones”, porque “el amor lo es todo”; “abarca todos los tiempos y lugares”. Si faltase ese amor, “ni los apóstoles anunciarían ya el Evangelio, ni los mártires derramarían su sangre”. De este modo, la santa descubrió su vocación como corazón de la Iglesia.

En este contexto se entienden mejor las palabras de nuestro querido Papa Francisco en el “Mensaje para la Jornada Mundial de las Misiones 2018”: “Cada hombre y mujer es una misión, y ésta es la razón por la que se encuentra viviendo en la tierra”. Palabras fuertes, que señalan el sentido de nuestras vidas: vivimos en la tierra para ser una misión, para transmitir a los otros nuestra fe. Y, en efecto, no hay cristiano auténtico que no tenga el deseo de compartir con los demás la fe, que es lo que da sentido a su vida. El mismo Santo Padre escribió en la Exhortación Apostólica *Evangelii gaudium*: “Yo soy una misión en esta tierra, y para eso estoy en el mundo” (n. 273).

Dirigiéndose a los jóvenes, dice el Papa Francisco: “Vivir con alegría la propia responsabilidad ante el mundo es un gran desafío. (...) El hecho de que estemos en este mundo sin una previa decisión nuestra nos hace intuir que hay una iniciativa que nos precede y nos llama a la existencia” (Mensaje para la Jornada Mundial de las Misiones 2018). Dios nos ha elegido para “ser misión”, y no importa cómo se concreta nuestra vocación personal, porque, sin miedo, hay que vivir y anunciar nuestra fe, al tiempo que, por nuestra unión con Dios mediante la oración y los sacramentos, participamos de esa común vocación misionera que configura al conjunto del Cuerpo Místico de Cristo, que es la Iglesia. Todos somos misión. La luz de la fe ha de dar sentido a nuestras vidas y tiene que llegar a todos, porque el Señor quiere que todos “lleguen al conocimiento de la verdad” (1 Tim. 2,4).

La “transmisión de la fe, corazón de la misión de la Iglesia, se realiza por el ‘contagio’ del amor, en el que la alegría y el entusiasmo expresan el descubrimiento del sentido y la plenitud de la vida. La propagación de la fe por atracción exige corazones abiertos, dilatados por el amor”, escribe nuestro Santo Padre (“Mensaje para la Jornada Mundial de las Misiones 2018”). Y sin olvidar en ningún momento la misión que nos corresponde entre “los nuestros”, en nuestro mundo occidental, pues “la periferia más desolada de la humanidad necesitada de Cristo es la indiferencia hacia la fe o incluso el odio contra la plenitud divina de la vida. Cualquier pobreza material y espiritual, cualquier discriminación de hermanos y hermanas es siempre consecuencia del rechazo a Dios y a su amor” (“Mensaje para la Jornada Mundial de las Misiones 2018”). Que el Señor aumente nuestra fe -como le pedían los apóstoles- y nuestro amor a Él, para hablar de Él en nuestros ambientes habituales.

† José Ignacio Munilla Aguirre
Obispo de San Sebastián

DOMUND 2018

Eliza Katolikoaren misioetako zaindaria ditugu Xabierko San Frantzisko eta Jesus Haurren eta Begitarte Santuaren Teresa donea, gure Santa Teresita. Bata Jainkoaganako maitasunaren eta arimak salbamenera eramatearen sumendi bizia izan zen, horretarako munduaren azken mugetara joan behar bazuen ere; bestea, beti Lisieuxko monasterioan itxia zegoelarik, eragin handia izan zuen, Xabierko Frantziskoren antzera, fedearen zabalkundean. 2018ko Domund egun honetan gure arreta jartzen dugu, bai Xabierrenugar sugar misiolari nekazinean, Japoniaraino eta Txinako inguruetaraino eramanez baitzuen sugar horrek, bai Teresak “ezkutuko” bere bizitzan izan zuen eragin izugarria. Orduan bezala, gaur ere badira aurreneko leerroan dauden misiolariak, eta badira atzeko leerroan daudenak, intendentzia-lan materialak eta espiritualak egiten bezala. Gehiago esango nuke, gaur egun lausotuak edo deseginak gelditu dira “aurreneko” eta “azkeneko” leerroen arteko mugak. Lurra delako planeta misio-lurralde da.

Dakigunez, arimekiko grinak jan egiten zuen Lisieuxko Santa Teresa; beste Teresaren, Avilakoaren, nahi bizi bera nabaritzen zuen, prest baitzegoen martiritza jasateko ere fedearen testigantza “jentil herrietan” egitera joateko. Baina bi Teresa hauek barrutegi itxian bizitzea onartu zuten; espirituzko “indar-sortzaile nuklearra” izan nahi zuten monasterioan. Zientzilariek ematen dizkiguten azalpenen arabera, metal jakin batzuen materia pixka batekin energia ugari atera omen daiteke, etxe askotako argi-indarra sortzeko eta makina konplexuak mugiarazteko. Kristoren Bihotzarekin bat egiten ahalegintzen den eta eskainia dagoen bihotza ere grazia-sortzaile gertatzen da, Jainkoaren graziari esker, bere ekintza argitzailea lurraren azken mugetaraino eramateko.

“Misio” hitza bere esanahirik ohikoenean hizpide dugunean, heroiak izan diren gizon eta emakume asko datorkigu burura, ahaleginak egin dituztelako eta egiten ari direlako gure fedearen testigantza askotan basatienak diren lekuetara eramaten eta, aldi berean, pobreen artean pobreenak direnei era ordainezinean laguntzen dietelako giza mailako garapena lortzen. Gure erantzukizuna da senide hauei eustea, bai laguntza materiala emanez bai otoitz eginez. Lisieuxko Santa Teresaren kasuan bezala, erabakigarria da misioan guk ere parte hartzea. Ondo ezagunak dira Santa Teresitaren hitzak, bihotza duen gorputzarekin konparatzen baitzuen Eliza, San Paulok bezala, bihotzak odola gorputz guztira bidaltzen duela; honela zioen Teresita doneak: Elizaren bihotzak “berekini ditu bokazio guztiak”, izan ere, “guztia da maitasuna”; “denbora eta leku guztiak hartzen ditu”. Maitasunik ez balitz, “apostoluek ez lukete aldarrikatuko Ebanjelioa, ezta martiriek beren odola ixuriko ere”. Era honetan, Teresita doneak aurkitu zuen, Elizaren bihotza izatea zela bere bokazioa.

Testuinguru honetan, hobeto ulertzen dira, 2018ko Misioen Mundu Jardunaldirako Frantzisko gure Aita Santu maiteak esandako hitzak: “Gizonezko eta emakume bakoitza misio da, eginkizun; horregatik bizi da lur honetan”. Gure bizitzaren esanahia adierazten duten hitz indartsuak dira: misio izateko bizi gara lur honetan, geure fedea besteei eramateko. Egiaz, ez da benetako kristaurik, bere bizitzari zentzua ematen dion fedea besteekin partekatu nahi ez duenik. Aita Santuak *Evangelii gaudium* Aholku Hitz Apostolikoan idatzi zuen, baita ere: “Ni *egitekoa* edo *misioa* naiz lur honetan, eta horretarako nago ni munduan” (273. zk.).

Frantzisko Aita Santuak gazteei esaten die: “Erronka handia da nork bere erantzukizuna alaitasunez bizitzea munduaren aurrean. (...) Guk alde zuzenetik erabaki izan gabe, gu mundu honetan egoteak adierazten digu, badela gu geu baino lehenagokoa den ekimena, bizitzara dei egiten diguna” (2018ko Misioen Mundu Jardunaldirako Mezua). “Misio izateko” aukeratu gaitu Jainkoak; ez dio axolarik gure bokazio pertsonala nola zehazten denak; bizi eta geure fedea aldarrikatu behar dugu beldurgabe, eta, aldi berean, otoitzaren eta sakramentuen bidez Jainkoarekin bat eginik, Eliza den Kristoren Gorputz Mistiko osoa eratzen duen eta guztiona den bokazio misiolarian parte hartzen dugu. Denok gara misio. Fedearen argiak eman behar dio zentzua eta esanahia gure bizitzari eta guztiongana iritsi behar du fedearen argi horrek, “gizaki guztiak egia ezagutzera iristea” (1 Tm 2, 4) nahi baitu Jainkoak.

“Elizaren misioaren bihotza den fedea transmititzea maitasuna ‘kutsatuz’ egiten den zerbait da; ekintza horretan, alaitasunak eta gogo biziak adierazten du, hori dela bizitzari zentzua eta betetasuna ematen diona. Erakartzearen bidez egindako fedearen zabalkundeak, maitasunaren eraginez bihotza zabalik eta zabaldua izatea eskatzen du”, hori dio gure Aita Santuak (2018ko Misioen Mundu Jardunaldirako Mezua). Eta ez dugu inola ere ahaztu behar “geureak” direnen artean, mendebaldeko geure mundu honetan, egitea dagokigun misioa; izan ere, “Kristoren beharrez aurkitzen den periferiako gizadi atsekabetuena federeanako axolarik ez zaiona da edota, okerrago dena, bizitzaren jainkozko betetasunari gorroto diona. Nolanahiko pobretasun materiala nahiz espiritualak, eta senide arteko nolanahiko bereizkeria, Jainkoa eta haren gudanako maitasuna arbuiatu izanaren ondorio da beti” (2018ko Misioen Mundu Jardunaldirako Mezua). Apostoluek eskatzen zioten bezala, Jaunak handitu dezala sinesmena gudan, baita berarenganako maitasuna ere, ohiko gure ingurunean beraren berri eman dezagun.

† Jose Ignazio Munilla Agirre

Donostiako Gotzaina